

Donostiako 42.



Nazioarteko Zinemaldia

Seduzitzaile klasiko baten begirada

Lana Turner aktoreak Donostia Saria jasoko du gaur gauean Victoria Eugenia antzokian

Maria Cristina hoteleko Mataria jendez gainezka bete zen atzo arratsaldean, gaur gauean Donostia Saria jasoko duen Lana Turner aktoreari ongietorri beroa emateko asmotan. 'The Postman Always Rings Twice' filmeko protagonista nagusiak Robert Mitchumen lekukoa hartuko du jaialdiaren palmaresean.

A. GOSTIN / DONOSTIA



Lagun mordoska hurbildu zen atzo Maria Cristina hotelera Lana Turner ikusteko asmoz. ANDER GILLENEA

Rolls Royce handi batean sartuta agertu zen Lana Turner aktorea atzo arratsaldean Donostiara, gaur gauean Victoria Eugenia antzokian emango dioten Donostia Saria jasotzeko asmotan. Lagun mordoska batek toperaino bete zuen Maria Cristina hoteleko ataria eta aktoreak ia estualdi bat baino gehiago izan zuen hainbat zaleturen artean.

Aktorea Idaho estatuan sortu zen, 1920. urtean. Bere aita Virgil Turner koreografo ospetsua izan zen eta 17 urte besterik ez zituen egin zuen debuta zaz-

pigarren artean, William Welmanen 'A Star is Born' pelikulan lan eginez. Warner etxean aritu zen platoan denbora labur batez, baina jarraian Metro Goldwyn Mayer etxeak hartu

zuen, emakume ilehori, gaizto, lizun eta erotikoko baten rol egokituz. Emakume planta honek arrasto nabarmena utzi dio bizitz osoan, bere seduzitzaile fama pantaila barrutik kanpora zabal-

du baitzen bat-batean. Goian aipatu 'The Postman Always Rings Twice' obra beltzean egindako lanak puztu zuen bere fama, batez ere galtza motz, alkandora zuri eta zapia buruan duela agertzen den

aurreneko eszena antologikoari esker.

Dena dela, Vincente Minnelli-ren aginduetara egin zuen 'The Bad and the Beautiful' pelikula da bere lanik onena, Douglas Sirkekin batera egin zuen 'Imitation of Life' melodrama zoragarriarekin batera. Kirk Douglas zuzendaria aztoratzen zuen aktore baten rola bete zuen aurrenekoan eta alabari bizkar ematen dion ama zinikoarena bigarren. George Cukorren 'A life of her own', Jean Negulescoren 'Rains of Ranchipur', George Sidneyren 'The Three Musketeers' eta Mark Robsonen 'Cumbres borrascosas' lanak osatzen dute bere filmografia. Lana Turner behin ere ez zen aktore handia izan, bain irudi erotikoa, gaiztoa eta anbigua sortu zuen.

Bere bizitza erreala fikziozkoa baino askoz ere gordinagoa izan da, ordea. Lana Turner, Stompanato izeneko gangster baten maitale izan zen eta istilu batzuen ondoren, bere alabak gaizkilea hil zuen, bien artean halako gora-behera istilutsuak sortuz. Aktoreak minbizia dauka.

Marko konparaezinetik

INES INTXAUSTI

Eta Maskorra goes to...

Goizeko 9 eta 12etan proiektatuko diren azken bi luzemetraiekin bukatutzat jo beharko dugu aurtengo zinemaldi donostiara.

Sail ofizialeko lehiaketa amaitzen denean, akabo Zinemaldia. Gainontzeko guztia argi dago gainera azalean geratzen dela, eta hemengo sukaldari mirregarriek bere plateretan jateko modukoak ez diren materiala da sail ofizialekin kanpo baztertzeko dutena. Bizitza amets bezala eginda badago, zinema ere bai. Baina altxor ezkatatuak Zabaltegi sailean agertu dira berri ere.

Eguraldiak bere aldetik gogoz gogoratu digu negua hirira etorri dela eta bihar palmaresa entzun ondoren guz-

tiok nork geure bizitza arrunt eta errutinariantz itzuli beharko dugula. Ez uste zinemak abandonatuko gaituenik, ezta pentsatu ere. Zuetako gehienok bizi zaren tokiko karteldegia jarraitzen lan asko izango duzue, baina hemen ikusi ditugun izarrek betiko ahaztuko dituzte hemen ikusitako bildotsen aurpegi gregarioak.

Biharko galan nortzuk ikusiko ditugun asmatzea gauza erraza bihurtu da. Azken momentuan Donostiako Zinemaldiaren antolatzaileok beti maite dute mangapean topatutako ateraldi metazinematografikoa baino megazinematografikoa den batekin amaitzea, eta aurtengo *boutade*-arekin jarraituz,

Harrison Ford etorriko zen zurrumurrua kazetari kuxkuxeroen aho barruan sartu dute badaezpada ere. Zinemaldiaren ideia baino Odonen aholkulari turistikoa dirudi. Gogoratu besterik ez orain dela urte batzuk Robert de Niro sari bat ematera etorriko zela esan eta ondorengo egunean ezeztatu zutenean zenbat jende bildu zen Gipuzkoako hiriburu eder honetan. Agian Rosa Diezek jakingo du nik baino hobeto.

Geografiko eta literarioki marko konparaezina den honetatik ikusi eta entzun ditudan gauza guztiak ezin ditut esan lagunene ospe morala babestuz. Baina argi dago gu ez bagara geure buruaz barre egiten hasten beste batzuk

izango direla lan horren kontrola manipulatzen hasiko direnak. Bihar azken kronikatza ebitaezina den balantze delako horrekin bukatuko dugu, baina argi dago datorren urtean gure-guretzat oso ezagunak izaten diren protagonis- tekin ariko garela. Hobe izango da denontzat ere urte honetan zehar gure irudi soziala zaintzen hasten bagara, batez ere politikariak, hemengo aktoreak eta, nola ez, Del Teso, Gostin, Gaztelumendi, Insausti, Zufia, Agirre, Ereñaga, Almagia, Rius, Muñoz, Alonso, Basurko, Forcada, Garzia eta abarreko kazetari guztien ahoak bioalkoholarekin garbitzen badituzte konponbiderako asmoa egin baino lehenago.

AEG
ACADEMIA
ESTUDIOS GENERALES
1994/95 IKASTURTEA
**ESKOLA
GRADUATUA**
Titulu ofiziala
**EHURAKO
SARRERA**
DONOSTIA - URBETA, 44 - 1º
Tel: 45 19 52 / 46 69 08

2.Mailako L.H.
TITULU OFIZIALA
✓ Sarrera B.B.B. edo U.B.I.-rekin
✓ Bi ikasturte
✓ Lan Poltsa
✓ Praktika enpresetan
AEG
IKASKETAKO ZENTROA
ZENTRO OFIZIALA ETA HOMOLOGATUA
**ENPRESEN ADMINISTRAZIOA
GESTIO INFORMATIKA
MARKETING**
Arroka Kalea, 6 - behea
20006 DONOSTIA
Tifa. 46 69 08
Faxa 46 67 44
**MATRIKULA
IREKIA**

94/95 IKASTURTEA

ILazKI
EUSKALTEGIA
Euskara ongi ikasteko!
● **EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK:**
Urritik ekainera bitarteko ikastaroak, 2 ordu egunero, astelehenetik ostiralera, goizez, arratsalde eta gauez.
● **EGA IKASTARO BEREZIAK:**
Goizero hiru ordu, urritik otsailera. Larunbat goizetan, urritik ekainera bitarte.
● **IRALE: PL-1 ETA PL-2**
KONSTITUZIO PLAZA 5 - 2.a Tfnua. 4249 10